

ren iritxirik eman baño lenago, Euskaltzaindiari iragartzen zion-da. Oraingoan ez duela ez oiturik ez astirik artu; beriala erantzupena eman duela ta auxe deritzaiola mingarrena, batez ere, Azkue jaunaren izen befa askok erabili lezatekelako euskerazko izenen kaltez.

III.—Altube jaunak *acento-tzaz* egindako lana irakurtzen jaraitu zuen.

IV.—Landeretxe jaunak bere alderdian dabiltzan euskerakera politik irakuri zizkigun.

V.—Azkue jaunak ere berak bildutako beste euskerakera edefak irakuri zituen.

Ta beste gairik izan ez-da, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Bilbo'n, Aldundi-Jauregian, 1925'ko Urila'ren 26'an

Euskaltzain abek bildu dira: Azkue maipuru, Urkijo, Landeretxe, Eguskiza, Olabide, Altube eta Lakonbe eta urgazletatik Bähr eta Oleaga.

Oi danez otoitzez asi zan batzaraldia.

I.—Aita Intza'k, Yaur-saileko Buruzagi danez, iragari dizkigu Napañoa aldeko euskal-lanak. Antxe iratsi da *Euskeraren adiskideak* deitzen dan Bazkuna eta egiazko adore edefez asi dala, ta bertako bazkideak oso sutsu daudela adierazi digu. Gañera Aita Intza berak esan digu: nolà gertu ta egin dan euskal-batzaldi bat, Napañoa bertan: zein idazle sarituak izan diran; zer gai erabili diran ta batzaldiaren apaingari egin dan jaialdia. Pozik entzun ditu Euskaltzaindiak befi abek.

II.—Landeretxe jaunak irakuñi dizkigu, Bidasotik aruntz, bere erialdean bildutako euskal-esakerak. Badute beren gatza. Azkue jaunak bildutakoai, Landeretxe'nak eratzi bear zaizkio, oñela bata bestez lan osoa, gai ontan, gertu dedin.

III.—Azkue jaunak, euskal-esakeren biltza utzi gabe, beste lantxo bat artu du bere bizkar: *Euskal-somaketak*. Lantxo onek alako idazki berezi bat auretik darama, oraintxe egileak irakuñi diguna, adierazirik zenbat onura euskerari dakarzkioten lantxo abek, naiz berez mirixkak iritxi. Aldi auxe Euskaltzaindiari eroso datorkio, Amerika'ko euskaltzale batzuei eskerak emateko, dakizkiten somaketa batzuek argitaratu dituztelako, oñetarako ari emen-da *Kirikiño*'z esaguna dan idazleak.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta otoi-tzez amaitu da batzaraldia.

Bilbo'n, Aldundi-Jauregian, 1925'ko Urila'ren 27'an.

Auruko batzaraldian aipatzen diran euskaltzain eta urgazle berak datoz eta baita ere Ormaetxea.

I.—Bähr urgazle jaunak lan eder bat irakuñi digu: Gipuzkoa'ko euskalkiaren adizkerak. Erúz bildu ditu noski. Urkijo jaunak Euskaltzaindiari bereziz eskatu dio, bere zuzendaritzako *Revista Internacional*-en Bähr jaunaren lan auxe argitaratzeko baimena. Euskaltzaindiak baiezkoa eman dio. Onen antzeko lan edera badu Azkue jaunak: Bizkai'ko euskalkiari dagozkion adizkerak. Gure *Euskera*'n lan au argitaratzeko erabakia Euskaltzaindiak lendik artua dauka.

II.—Ormaetxea urgazle jaunak bere txosten bat ira-